

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bedia



Aurkibidea

Udalerria: Bedia

Sarrera



Bedia Bizkaiko erdialdean dagoen udalerr txikia da, Arratia eskualdean. Honako auzo hauek ditu: Asteitza, Barroeta, Bidekoetxe, Elexalde, Eroso-Ugarte, Ibarra, Murtatza eta Utxarain. Herri hauek ditu mugakide: Galdakao iparraldean eta mendebaldean; Lemoa ekialdean; eta, Igorre eta Zeberio hegoaldean. Mendebaldeko euskararen barruan Arratiako euskararen barruan kokatzen da bediarren hizkera.

Argazkia: Zarateman

- **Biztanleak:** 945
- **Euskaldunak:** %57,14

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **3**
- Zintak: **5**
- Pasarteak: **73**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **68**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- IRLAren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak



Juan Aiesta Urkiri (1893)

Baserritarra eta dultzaina jolea.

Jose Mintegi (1925)



Bediako "Txokolateria" etxean jaioa, bertan bizi izan da beti. Aita Ubideakoa zuen. Argiketaria izan da: Bilbon ikasi zuen lanbidea 14 urte zituela. Arratiako tranbiak etxe parean zuen geltokia, eta horri buruzko istorioak kontatu ditu. Animaliekiko zaletasuna ere badu, eta Ibaizabal ibaia garbi-garbi zegoeneko kontuak ondo ditu gogoan: arrainak, hegaztiak, sugeak...

Josefina Uriarte Angoitia (1937)



Espainiako Gerra Zibila puri-purian zegoela, etxeak Santanderren ebakutatuta zeudela jaio zen Josefina. Hala ere, Bediako Ibarra auzoan hazi eta bizi izan da beti. Aita Lemoakoa zuen eta ama Zeanurikoa. Aita gazterik hil zitzaien eta amak gogor egin behar izan zuen behar bost seme-alaba aurrera ateratzeko. Josefinak ere amaren bide bera hartu zuen eta beti aritu izan da lanean, etxean zein kanpoan. Eskola kontuak, txerri hiltzeak eta osteko eginkizunak, Elizakoak, gaztetako ibilerak... izan zituen berbagai, besteak beste.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ekonomia eta industria

1.1. Bediako eta Arratiako gazteak Bilbora joaten ziren beharrera

- **Hizlaria(k):** Mintegi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BED-001/002
- **Iraupena:** 00:02:15. **Hasi:** 00:02:40. **Bukatu:** 00:04:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Arratia izan arren, Bilbo eta Galdakao aldearekin hartu-eman handia izan dute. Galdakako "dinamitan", Basconian, Firestonen edo Bilbon egiten zuten lan gehienek. 14 urtegaz hasi zen bertara joaten, lanbidea ikastera eta beharrera.

Transkripzioa

-Arratia izanda, zuek hartu-emona eta zeñekin euki dozue gehiau,
Arratiako Igorrekin-eta, edo gehiao Galdakaokin eta Amorebietakin-eta?
-Guk Bilborantza gehiao danok e! Tranbie be bertan paretan [ginduezan],
tranbien beti Bilbora. Neu be Bilbon beharren ibili nitzen ta mutikorik.
-Hemengo jende asko-eta beharrean, Galdakao, Bilbo...
-Danak Baskonian enjeneral, ta Zuhatzun /Zugutzun/ hemen Dinamiten, ta

Bilbon muellean.

-Dinamiten, hor Galdakaon?

-Galdakon. Ta gero ba Baskonia. Horixe. Ta gero horra bo bai muellera asko, Arratietik tranbiek beterik etorten ziran eta Bilboraarte. Bilbon ba badiñotsut, muellera jente asko joaten zan e?

-Muellera?

- Bai-bai, beharren, Arratietik e? Hemengo jentea enjeneral Baskoniara, eta Firestone. Firestone geroao, baie lehenao Baskoniara.

-Ta zu nun ibili ziñan?

-Ni neu Bilbon, ni ibili nitzen, ni naz elektrizistea, transformadoratan, mutikorik Egurenean. Eguren sano famosoa ixin de, lehenau hemen inguruan sano famosoa. Lo ke pasa ke ya hori desaparezidu ein de. Mutikorik ibili nitzen hantxe, Bilbon, Maximo Agirren; Gran Vian dau bokakalle bat, Maximo Agirre, ta hantxe, trasformadorak eta motorrak, elektrikuek.

-Eta zelan izan zan hamendik...

-Tranbien.

-Bai baiña, nun hasi ziñan zu ikasten elektrizista?

-Bilbon, mutikorik, ba hamalau urtegaz hasi nitzen-ta!

-Aittak esanda edo?

-Klaro. Bai-bai, Bilbora hamalau urtegaz ya. Tranbiek be orduen Arenalean paretan eurien, ta gero han... urte askora San Antonera, handik San Anton. Ta gero desaparezidu ein zan ezkerro, azkenean ba trenean.

2. Baserria

2.1. Aitita ardo bila Errioxara idiagaz

- **Hizlaria(k)**: Mintegi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BED-001/004
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:06:05. **Bukatu**: 00:06:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Bere aitaitaren garaian, idiagaz joaten ziren Errioxara, eta ardoa ekartzen zuten Bediara.

Transkripzioa

-Akordetan naz lehenau entzutea eureri, ezta? Riojara joaten ziran aitite edo izengo ziran, aitite-edo, ez dakit, baten batzuk, nik ez dodaz ezetu e? burdi..., idi parejeagaz, ta mulon bat-edo aurretik hartu eta ardoaa handik Riojatik hona ekarten eurien.

-Hamendik joan haraiño eta ardaua ekarri.

-Idiekaz eta zaldiekaz-edo, haraiño joaten ziren ardaotan.

-Burdiegaz ezta?

-Bai.

3. Aisia

3.1. Zepo eta amuaz harrapatzen zituzten txori txikiak

- **Hizlaria(k):** Mintegi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BED-001/005
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Gazte gazterik hasi zen txoritan: zepoagaz eta amuagaz. Amu bati harra ipini, eta horrekin harrapatzen zituzten zozo-birigarroak. Eskopetarik ez du izan.

Transkripzioa

- Eta txori kontuak eta orduan zu ibili izan zara, kasan-eta?
- Bai, baie... mutikotan ba gaztetan horrixek. Zepoakaz eta, hori zepoa bakizu, horrixekaz, eta antzuloagaz be bai e? Bai, zozo-birigarroa koiten han antzuloagaz bai, e?
- Ta ze ipintzen zenduen?
- Harra, harra, harra, bakizu zer dan harra, ezta? Harragaz e? ta edurregaz asko koiten ginduzen; orduen edurre be sarri eiten euen, oin baiño sano gehiao e? Kentzean zindun hori gorritxu bet ta ipinten zindun antzuloa pite zatitxu betegaz ta harragaz, holaxe jausten ziren, zozo-birigarroak bai.
- Eta gero?
- Ba jateko!
- Barrura! eta gozuak izaten ziran?
- Honbre! gozoak, apetitu ona, baia gozoa da, bai.
- Eta bestela hori zepoakaz eta amuakaz.
- Bai antzuloakaz. Bai, palutxu beteri hari... pite zatitxu betegaz antzuloa, sartu lurrean, egoten ziren... edurrik eta ez eurien ikusten eta etorten ziran, blas!, atoan jeusten ziren, goseagaz etorten ziren.
- Eta eskopetarik eta?
- Eskopetea nik ez dot eukin, e; txinborea bai, hori aire... Ezebez. Nik denporarik be ez dot eukin, ni Bilbora denpora guztien beharren; goizean joan ta geubean etorri, ze tranbie ta hartzean ta tardetan euen hemetik Bilbora, ordubete paseutxo igual, e!

4. Herria, azpiegitura

4.1. Egun guztia lanean, eta gauez ikastera

- **Hizlaria(k):** Mintegi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BED-001/006
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:08:25. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

- **Laburpena:** Egun guztia beharrean, eta zazpitan lanbidea ikastera joaten ziren, "Artes y oficios"era. Gaez ailegatzen zen beti etxera. Askotan lo.

Transkripzioa

-Ta badiñotsut... eskolatik edo beharretik urtenda, joaten gintzezan "Artes y Oficios"era, Basurtun han goien egon zan eskolea, ta hara joaten gintzezan eskolara, beharretik urtenda zazpiretan, hara ikastolara, gabaz. Ta baten fijate ze pase jatan? Montetan naz tranbien han ta loak hartu ta Lemoaraarte lo!, ta "benga", urten eta "aiba, Lemoa!", handik gero oiñez etzera, geubean e! Ba hori ba tranbia bederatzien koiten gindun eta ordu te piku tardetan euen tranbiek hona, oseake fijate, gero geubean handik bakar-bakarrik honantza. Hamarretan, hamarrak eta pikuen, bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Arratiako tranbiaren ingurukoak (BED-001/008)

Arratiako tranbia beti ezagutu izan du. Garai batean bere arrebak taberna izan zuen etxean bertan, eta tranbiako gidariak ardo tragoxka bat hartzen zuten Bedian geratzen zirenean.

2. Bediako txoririk ezagunenak (BED-001/009)

Elizatzoria, txindorra, txioa, zozoa, birigarroa♦ eta neguan hegaberak, eta oilagorrak. Txanbillotxa, jilgeroa eta pioa ere bai. Horiek izan dira txoririk arruntenak.

3. Ibaizabalen ikasi zuten igeri egiten (BED-001/012)

Igeri egiten Ibaizabalen ikasi zuten. Ura garbi-garbi zetorren, eta umeek bertan jolasten zuten. Emakumeak arropa garbitzera ere bertara joaten ziren. Igeri egitera mutilak bakarrik joaten ziren, neskarik ez. Fraka motzekin, edo bilutsik egiten zuten igerian.

4. Ibaizabal oso aberatsa zen: loinak, angirak, arrankariak... (BED-001/013)

Erreka garbi zetorren eta arrain asko zegoen: loinak, barboak, ezkaluak, angirak, arrankariak... karramarroak ere bai. Benakea, esparbela eta butroia erabiltzen zituzten arrantzan egiteko, edo bestela, eskuekin. "Ibaizabalek hainbat gose kendu dau gerraostean". Bilbotik ere etortzen ziren kanaberaz arrankariak eta barboak arrantzatzera. Erreka-sugeak ere izaten ziren.

5. Ebakuazioan jaio Santanderren (BED-002/002)

Ebakuazioan jaio zen, Santanderren; baina, etxera bueltatu ziren bataiorako. Trenean joan ziren Santanderrera.

6. Etkezarrera umeak hazten (BED-002/004)

Aita hil ondoren, eta eskolara joan bitartean, Etkezarreko baserrira joaten zen bertako umeak hazten.

7. Eskola sasoiko jolasak (BED-002/005)

Tabara, pilotan eta soka jolasten zuten eskolan. Eskola inguruan landak eta soroak egon ziren.

8. Maistra erdaldunak (BED-002/006)

Maistra erdalduna eduki zuten eta goitik behera pintatzen zen eskolako komunetan. Maistrak galderak egiten zituen banan-banan. Ikasteko, entziklopedia bat erabiltzen zuten.

9. Tabetan jolasten (BED-002/008)

Neskek tortolosean ('tabetan') jolasten zuten: kanika airean dagoela tortolosa ('taba') posizioz aldatu behar zen. Mutilak eta neskak banatuta egon ziren eskolan.

10. Ama soroetara behar egiten (BED-002/010)

Ama soroetara joaten zen behar egiten. Gero, alabak lanean hasi ziren eta semeak ofizioa ikasten.

11. Ama etxerik etxe arropak josten (BED-002/011)

Ama makina gerrian joaten zen josten etxerik etxe. Zeukanak dirua ematen zion trukean eta dirurik ez zeukanak jeneroa.

12. Mutilak ofizioa ikasten eta neskak josten ikasten (BED-002/012)

Oihalak etxeokok izaten zituzten prest. Askotan, arropak egin baino, konpondu behar izaten zituen amak. Mutilei ofizioa eman zien amak eta neskak josten ikasten bidali zituen Usansolora.

13. Baserriko beharrak (BED-002/013)

Etkezarrean behar asko egiten zituzten: basoan azpigarria moztu eta gurdian ekarri, sagar sasoian sagarrak batu eta etxean soroko lanak egin.

14. Saldutako sagarren diruarekin oihala erosi (BED-002/014)

Behin, goizetiko sagarrak saltzen joan zen Durangoko plazara. Atera zuen diruarekin jantzi berri bat egiteko oihala erosi zuen. Jantzia txapa gainean berotzen ziren plantxekin lisatzen zuen.

15. Neskek fabrikako beharra utzi ezkontzeko (BED-002/016)

Firestonen hasi zen lanean gaztetan, oihala egiten. Ezkontzeko uzten zuten lana neskek; hala ere, bera ezkondu eta gero ere etxeetara joan izan da beharrean.

16. Urtero hiru txerri hazi (BED-002/017)

Soraa ereinda dauka, baina artoa, baba eta txerriarentzako kalabaza falta ditu. Txerria San Juan inguruan ekarri zuten iaz eta otsailean hil. Hiru txerri hazi izan ditu urtero.

17. Txerria hiltzen (BED-002/018)

San Martinetatik aurrera hiltzen da txerria. Gero, txerrikiak gatzetan gorde izan dira eta txorizoak oliotan edo koipetan. Kontsezio egun inguruan hil izan dute txerria, ilargiari begiratu barik.

18. Pernila sikatzen (BED-003/001)

Pernilak gatzetan kontserbatzen ditu, paperezko zaku batean sartu eta pisudun harri handi bat jartzen die gainean. Kiloko egun bat eduki ostean, gatza kendu, sikatu, zakuan sartu eta eskegi egiten ditu.

19. Txorizoak egiten (BED-003/002)

Askok pernila ere aprobetxatzen dute txorizoak egiteko. Txorizoak egiteko giharra txikitu egiten da, lehen eskuz, eta gero hesteak bete sikatzen uzteko. Orain makinarekin egiten da dena.

20. Odolosteak egiten (BED-003/003)

Odolosteak ("mortzillak") arrozarekin, kipularekin eta porruarekin egiten ditu. Lehen hesteak garbitzen ere behar handia edukitzen zuten, baina orain erosi egiten dituzte. Heste lodiarekin "aiteterno" egiten zuten.

21. Neskek ezin zuten hilekoarekin txerri-beharrik egin (BED-003/005)

Neskei, hilerokoekin egonez gero, ez zitzaien txerri-beharrik egiten uzten. Okela galdu egiten zela esaten zuten.

22. Txorizoei gatza botatzen (BED-003/006)

Oso garrantzitsua da txorizoei gatza ondo hartzea. Berak ez du okela pisatzen gatza botatzeko, uste duen beste botatzen dio. Hurrengo egunean, zatitxo bat pasatzen du zartaginetik eta probatu egiten du.

23. Txerri belarriak eta hankak (BED-003/007)

Txerri belarriak eta hankak ere aprobetxatu izan dituzte jateko, baina urdaila ez zaie gustatzen. Lehen, ohikoa izaten zen jateko hauek inauterietarako prestatzea.

24. Txerrikiak auzokoei, abadeari eta medikuari (BED-003/008)

Lehen, ohitura zen odolosteak auzokoen artean banatzea, 'ordea' esaten zitzaion. Txorizoak egin izan dituenean ere, txorta bana eman izan die auzokoei. Antzina, abadeari ere eramaten zitzaion, onena gainera. Josefinak inoiz medikuari ere eraman dio zerbait.

25. Herriko familia batek dirua utzi zuen herriko pobreentzat (BED-003/009)

Herriko familia batek, Artetxek, dirua utzi zuen herriko pobreentzat, ospitalean asistentzia edukitzeko eta eskoletarako. Josefinaren gazte sasoian oinetakoak erosten zizkieten diru horrekin. Geroztik, ez du entzun ezer egin denik diru horrekin.

26. Txerria hiltzeko modu bi (BED-003/011)

Auzoko bat ibiltzen zen etxerik etxe txerria hiltzen. Txerria modu bitara hiltzen ikusi du: batzuek mahaï gainera igo eta bertan hiltzen dute. Beste batzuek kolpea ematen diote buruan eta eskegi egiten dute bertan hiltzeko.

27. Txerria hustu eta garbitu (BED-003/012)

Txerriaren odola batzen denean zainak kentzen joan behar da apurka-apurka. Gero, txerria erre egiten dute, teila zati batekin garbitu eta zabaldu barruak ondo garbitzeko. Azkenik, eskegi egiten dute zabal-zabalik.

28. Oiloak eta untxiak egun berezietan jaten zituzten (BED-003/013)

Beti eduki izan ditu oiloak eta untxiak. Andreak umea egiten zuenean hiltzen zen oiloa. Andreari salda ematen zioten eta askotan gizonak okela jaten zuen. Untxiak ere noizean behin jaten zituzten.

29. Gazta herriko artzainei erosi (BED-003/015)

Herriko artzainek gaztak saldu izan dituzten, batez ere, freskoak. Apiril inguruan kentzen dizkiete umeak ardiei eta hortik ekainera egiten dituzte gaztak.

30. Esnea auzokoei erosi (BED-003/017)

Josefinak ez du inoiz behirik eduki, beti erosi izan du esnea herriko jendeari. Hala ere, ganadu gutxi edukitzen zuten auzokoei eta behiak ernari zeudenean beste batengana joan behar izaten zuten.

31. Behiekin itaurrean egiten (BED-003/018)

Inguruan, behiak erabili izan dira soroan behar egiteko. Batek behien aurretik joan behar izaten zuen bidea markatzen; itaurrean egitea esaten zitzaion. Beharrerako uztarria jartzen zieten behiei, uztarginak egindakoa.

32. Errementaria herrian (BED-003/019)

Herrian ez da artisaurik egon, errementaria bai oster. Hark zorroztarria eduki zuen tresnak zorrozteko eta ganaduei apatzak konpontzen zizkien.

33. Gurdia erabiltzen zuten kargak garraiatzeko (BED-003/020)

Astoa kargak garraiatzeko erabiltzen zuten, gurdiarekin. "Kamea" deitzen zioten gurdia uztarriarekin batzen zuen piezari. Gurpilak burdinazkoak izaten ziren.

34. Ardatza haria egiteko (BED-003/021)

Amak artilearekin haria egiten zuen, ardatzarekin. Gero, mediak egiten zituen hari horrekin.

35. "Zestiñak" jatekoak astoz herrira jaisteko (BED-003/023)

Astoari "zestiñak" ipintzen zitzaizkion plazara jatekoak saltzen eramateko. Herrian ez dago jatekoak saltzeko ohiturarik. Amaxea Durangokoa zuen eta hangoak sarri jaisten ziren baserritik jatekoak saltzen.

36. Euskara familian (BED-003/024)

Durangoko plazan erdara asko entzuten zen, kanpoko jende asko zegoen eta. Han hartu zuen bere amaxeak erdararako joera eta baita bere gizonak ere. Gizona Durangokoa izan arren, Josefinak ez du inoiz gizonaren berbeta kopiatu.

37. Arraina bermeotarrei erosten zieten, baina fruta etxean edukitzen zuten (BED-003/025)

Arrasti erdian-edo, trenez etortzen ziren arraina saltzen Bermeotik. Fruta saltzen ere etortzen ziren, baina gehienek etxekoa edukitzen zuten, sagarrak batez ere.

38. Herriko dendak (BED-003/026)

Lau bat denda ezagutu ditu Josefinak herrian: Mari Cruzen amarena, Julirena, Gloriarena eta Bediakoleakoa. Sagutxoak ere ikusten ziren dendetan.

39. Julik denda eta taberna eduki zituen (BED-003/028)

Lehengo dendetan denetik zegoen. Julik, esaterako, abarketak eta abarkak edukitzen zituen. Taberna ere eduki zuen Julik. Domeka arrastian jai itzelak egiten zituzten herriko mutil gazteek bertan. Neskak ez ziren tabernara sartzen orduan.

40. Herriko maisu-maistrak (BED-003/030)

Lehen plazatik segituan egon zen eskola, baina gero plaza igo egin zuten. Hormak eduki zituen lehengo eskolak, neskak eta mutilak banatzeko. Bertan urte askoan egon ziren Galdakaoko maisu bat eta Mundakako maistra bat. Eskola partikularrean Don Marcelino eta bere koinata egon ziren.

41. Herrian eskola bi (BED-003/031)

Herrian eskolan bi egon dira: Eroso-Ugarten ("Barrankon") eta plazan. Eroso-Ugarteko eskolara bertakoak auzokoak joaten ziren eta baita Ereñokoak ere. Dotrinarako plazara joaten ziren.

42. Lehenengo jaunartzeko arropak (BED-003/033)

Josefina urdin jantzi zen lehenengo jaunartzerako eta herriko beste bi gris; bestea guztiak, oster, zuririk. Askotan, baztertu egiten zituzten kolorez janzten zirenak. Mutilek traje janzten zuten lehenengo jaunartzea egiteko, "marinero" esaterako.

43. Lehenengo jaunartzeko ospakizunak (BED-003/034)

Lehenengo jaunartzea egiten zutenean etxean prestatzen zuten bazkaritxo bat. Auzokoek ere zeozer ematen zieten umeei, opari moduan. Egun horretarako "tirabuzoiak" egin zituen Josefinak.

44. Neskatan Lemoara erromeriara (BED-003/035)

Neskatan, Lemoako erromeriara edo zinemara joaten ziren domeketan. Azkenengo tranbia hartzen zuten etxera itzultzeko. Erromerian, neskak erdian egoten ziren dantzan eta mutilak inguru guztian jartzen ziren norekin dantza egin aukeratzeko. Gero, neskak erabakitzen zuen mutilari dantza eman edo ez.

45. Lemoan zinematik irten eta erromeriara joaten ziren (BED-003/036)

Nagusiagotan Zornotzara, Basaurira eta Etxebarrira ere joan izan dira erromeriara. Lemoan udaletxepean jotzen zuten musikariek; ezagunak ziren inguruan. Askotan, zinemara joaten ziren lehenengo eta gero erromeriara. Neskak goiz joaten ziren etxera eta mutilak tabernara.

46. Mutilarengana joateko apaindu (BED-003/038)

Lehen ere aurpegia margotzen zuten, baina gutxiago. Mutilarekin hasten zirenean, polito janzten ziren. Batzuetan, takoidun zapatak ere janzten zituzten. Behin, lehengusina batek jantzi bat egin zion Josefinari eta auzoko ume bat harrituta geratu zen jantzi horrekin ikusi zuenean.

47. Gizona ezagutu (BED-003/039)

Gizonak granitozko eskailerak jartzen egiten zuen lan. Auzoko batenean lanean egon zenean ezagutu zuen Josefinak. Gero, Lemoako erromerian batzen ziren. Josefinak behar egiten zuen orduan, baina gero ezkontzeko utzi zuen.

48. Aste Santuan paseoan (BED-003/040)

Aste Santuan ez zegoen erromeriarik, paseoan joaten ziren. Sasoi horretan, elizara ere asko joan behar izaten zuten ("bisitas a la iglesia")

49. Bediako jaietako ospakizunak (BED-003/041)

Jai itzela egiten zuten San Juanetan Bedian. Bizikleta karrerarekin hasten ziren jaiak. Galdakaoko banda etortzen zen eta hark jende asko ekartzen zuen Galdakaotik. Garellanoko banda ere ekartzen zuten.

50. Abuztuan titiriteroak (BED-003/042)

Abuztuan titiriteroak etortzen ziren plazara. Gero, platera pasatzen zuten dirua emateko. Jaietan "karamelerak" etortzen ziren. Umetan, inoiz Bilboko barraketara ere joan izan dira. Zirkura dirua zeukatenean joaten ziren.

51. Andreak laborak egiteko eta kartetan olgetako batzen ziren (BED-003/044)

Bediakolean eta plazan, andreak kartetan egiteko batzen ziren domeketan. Ibarran labora egiteko batzen ziren andreak. Orain, utzi egin zaio elkarrekin batzeari.

52. Andreak beharrak egiteko batu (BED-004/001)

Lehen andreak gehiago batzen ziren, puntuak egiteko edo josteko esaterako. Elkarri ere askoz gehiago laguntzen zioten baserriko beharrak egiten.

53. Gazteak presara igeri egiten (BED-004/003)

Auzoko gazteak presan igeri egiteko batzen ziren. Neskak zein mutilak joaten ziren bertara. Batzuek txalupa bat ere eduki zuten. Bainu jantzi luzeak erabiltzen ziren orduan.

54. Bularretakoak etxean egiten zituzten (BED-004/004)

Bularretakoak etxean egin izan ditu Josefinak. Oihal zati bati hiru punta jarri eta tiranteak josten zizkioten. Hilekoentzako oihalak ("pañuak") ere etxean egiten zituzten.

55. ezkon-bidaia motorrez (BED-004/006)

Ezkon-bidaian motorrez joan ziren Bartzelonara arte. Etapaka egin zuten: lehenengo Gasteizera arte, gero Logroñora, Zaragozara, Lleidara eta azkenik Tarrasara. Hamaika pasadizo bizi izan zituzten, esaterako, bidean guardia zibilek gelditu zituztenean.

56. "Logure naz ta lo ingo neuke" lo kanta (BED-004/019)

Umea lokartzeko "logure naz ta lo ingo neuke..." kantatzen zuten.

57. Dultzaina jotzen noiz eta nola ikasi zuen (BED-005/002)

Artaldea zeukaten etxean eta Gorbeia mendira joaten ziren udan. Aitak ekarri zion dultzaina Durangotik, Juan Praderek egindakoa. Alejandro Artetxeren anaiarekin ikasi zuen. Erromerietan zelan jotzen zuten ikusita ikasi zuen. Soldadu joan aurretik, leku askotan jo izan zuen.

58. Milizianoak etxe inguruan (BED-005/005)

Gerra garaian, ebakuatu egin zituzten eta Alonsotegira joan ziren. Milizianoak etxe inguruan izan zituzten. Asturiarrak gogorrak zirela esaten du.

59. Alonsotegira ihesi eta berriz buelta (BED-005/007)

Gerratik ihesi joan eta etxeratu zirenean, Alonsotegik bueltan, sagu asko topatu zituzten etxean. Frankistekin izan zituen elkarriketak aipatzen ditu. Milizianoen jokabideari buruzko iritzia ematen du. Errepublikanoek euskaldunak ez zituztela errespetatzen dio.

60. Apaizen debekuak dantzarako (BED-005/009)

Erromerietara tranbiaz joaten ziren. Denetariko kantuak jotzen zituen. Kapadunek (apaizek) debekatu egin zuten baltseoan dantzatzea. Parrokoek egiten zituzten gehiegikeriak kontatzen ditu.

61. Basoko iratxoak ikusi zituenekoa (BED-005/010)

Sorginak gauez ikusi izan ditu. Behin Gorbeia menditik etxerakoan anaiarekin zetorrela, gauez, iratxoak ikusi zituzten, piztu eta itzali egiten ziren suak. Atzera begiratu gabe joan ziren korrika etxera.

62. Belearn istorioa (BED-005/011)

Sorginen kontuak. Beleek artoa jaten zuten lehen. Non lo egiten zuten begiratzera joan zenean bat, ilargipean, beldurtuta etorri zen beleak tiroak itzuli zizkiola eta.

63. Sorginak eta iratxoak (BED-005/012)

Sorgin kontuak. Gau batez leihotik suak piztu eta itzali egiten zirela ikusi zuten etxekoek. Sorginak kobazuloetan egoten direla dio. Apaiz bati gertatutakoa kontatzen du.

64. Ameriketako artzainen bizimoduaz entzundakoa (BED-005/015)

Ameriketara milaka ardi izaten zituztela dio eta hala egiten zutela dirua. Ameriketako artzainen bizimoduaz entzundakoa kontatzen ditu. Familiako batzuen joan-etorria azaltzen du.

65. Dultzaina egiteko materiala (BED-005/018)

Dultzaina letoizkoa da, metalezkoa. Berez gorri kolorea izaten du. Nikelaren gainetik urrea emanda dauka eskuetan daukan dultzainak. La Guardian izandako pasartea kontatzen du.

66. Dultzaina, danborra eta panderoa (BED-005/019)

Dultzaina muntatzen du. Danborra eta panderoarekin jotzen du erromerietan. Neba-arrebekin joaten zen gehienetan. Dultzaina jotzen du. Dultzaina jotzen ikastea zaila bada, egiten ikastea zailagoa dela dio.

67. Dultzainaren ahokoa kanaberarekin (BED-005/021)

Dultzaina jotzen du. Dultzainaren ahokoa kanaberarekin egiten du. Eskuetan duenarekin ezin duela ondo jo dio.

68. Gipuzkoarren doinuak dultzainarekin (BED-005/022)

Iurretan omenaldia egin zioten. Bertan jo zuen eta berehala bukatzeko eskatu zion alkateak. Dultzaina jotzen du, Gipuzkoako bertso doinua. Gipuzkoarrak etortzen omen ziren besamotzak eta, bertso-paperak saltzen.

69. Dultzaina doinuak (BED-005/023)

Dultzaina jotzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com